

kultura

sortzen dugu

BILBAO 700 • III MILELIUM

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara. Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Hau da gure kultura.

www.bbk.es

bbk

MAHATSERRIKO ALDZKARIA
beirina

Lege gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

2001ko IRAILA 36. zkia.
125 pzt.

Justuegune,
Euskalgune

Aitziber Iurrtia

Iduna Taldea

Urtzi Urrutikoetxea

"Mugitzen naizen girotik
jasotzen ditut kontatzekoak"

Utzidazu karmina
kentzen

Urtzi Urrutikoetxea


betikoak



Karlisten gerra denborako etxe hondatuak (1875)

Beste askotan lez, Pedro Telesforo Errazkinen erretratu almazenera jo dogu oraingoan be goiko ale eder hori topetako. Hor ikusten doguzanak Zabalbide kaleko etxeak dira, eskoien Santa Monika komentua daukiela. Etxeok birrinduta dagoz bigarren gerra karlistako borroketako lehenengo lerroan egon ziriela. Historialariek diñoenez, berton karlistek euren kainoiak ipini ebezan Begoñako elizako bateria liberalen kontra joteko gero. Ez dakigu lortuko ete eben, baina etxeok ikusita eurak ez zirian lar ondo atarako. Santa Monika komentua, oster, kalterik baga dagoala emoten dau. Gaur egun be zutunik dirauen komentu hori 1860 urtean altxatu eben.

Argazkia "Bilbao 1860-1895. Pedro Telesforo de Errazquin" liburutik hartuta dago. Euskal Museoak argitaratu du.



I-2001-IBI

ABUSU IKASTOLA

Duela 21 urte guraso talde txiki batek Abusu Ikastola sortu zutenen parrokako beheko inguru. Beldunago Auzogorriak Udalaren kolaboratzailea pasatu zen.

1980an Zaramotako udalerriaren eskualdeko ikastola bat eratu zen. Bertan josten zutenak da Abusu Ugan, Auzogorriak (estalden) eta Zaramotako OHO ikastola egiten. 3 un aurrekoak berri, baina hain eta ezbesta jarraitzen zuten.

Duela 4 urte Zaramotako Eskualde Ikastola guraso asanbladan hezkuntza sare publikoan zuten, Abusu Ikastola berri, ikastola sare publikoan jarraitu zuten. Abusu Ikastola gure baino ez zuten botatu sare publikoan sartzearen alde eta beste 97ak aurka egiten zuten.

16 urte: Abusu Ikastola aurrekoala zentrua izan zen eta une horretan erabaki zuten ziklo gu eta horretarako Ikastola beste era batean.

Urtero 500 urte baino gehiago garatzen dire Bilbon Ikastola matriculatu gabe leku finko.

Abusu Ikastola une horretako auzora bezala aurkitzen da, eta era berria, beste zentru bat dituzten: bueltatze nahi zala.

Taldea argazki argazki
 Pentsatzen
 Ostaratzen
 Besteak (Oregaboen zai...)

▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Justuegune	5	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoña eta Euskerea	8	▶ Hezkuntza	24
▶ Taldea: Iduna	10	▶ Mendi Ibilbidea	27
▶ Toki izenak euskaraz	12	▶ Kultura: Aitziber Irurtia	28
▶ Elkarrizketa: Urtzi Urrutikoetxea ...	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Amen señoriton batek esan arte emoten dau gauze batzuk ezin doguzela euskeraz esan bere egin. Ze esango daustazue aber ez bada señoritoana "voy al Casco Viejo a tomar un vino con mis amistades" moduko bat esatie edo "He dado un lindo paseo por Abando-Ibarra (holan, raiatxu ta guzti)". Ta pentsaten dot hamen gero ta señorit@ gehieago dabilazazela. Lehen euskaldunon ezin gintzezan señorit@ ixen, ze señorit@ ixeteko lehenengo-lehenengo erderaz ein bier zan (sinasentodealdeanoporsupuesto). Gerotxuago dana dala señorit@ batzuk euskaldunek egin zirenen ta orduen (batzuk) pentsau genduen orduen bai, hareikaz sikieran euskeraz ein ezkerro beste era batera aituko zoskuela, baie ez, guk "zazpi kalien ibilli nez arrastien" esan, ta harietariko batek korrejidu: "Bilbo zaharrean zehar ostera ederra egin dot arratsalde honetan". Jodeer! Asertauko dogu ba? Orain Zazpi Kale Bilbo Zaharra dok ba! Eta ni Begoñeko eleizea zaharragoa zalakoan! Ta orduen "Bilbaolabieja" zelan esango dogu ba?

Baie txarrena da oingo gazteridxe bere bastante señorit@ ein jakule, ze hareri bere antzekoak entzuten dotzezuz: "Larunbatean Kaskoan ibili zinen? Ez zintudan ikusi". Baie, kaskoa ez da motoristek-eta buruen eroaten dauriena? Edo iguel buelta emon doskue danari, ta orain hareri zazpikale esan bierko dotzegu? Orduen funtzionaridxoan normalizaziño planakaz eta, laster baten munizipalak holan esango doskue "multa por no llevar el sietecalles puesto"... Ta neuri holango dilemie etorri jata. Ze, Ameriken egon nentzeneti neu bere dandy-dandy eindde etorri nentzen, baie euskeraz eitten dotelez (ta ez dakitt zegaittik, iguel dandy ixetiegaittik-edo), hamengo dandy-akaz ezin ixeten dot barbarik ein, asike hametik aurrera dandy-akaz inglesien ingo dot, Ameriken eitten dan modure, ze dandy bazara, dandy zara, ezpabere, ez zara ez dandy ez ezer, ta dandy ixen gura badozu inglesien ein bier dozu, ta ez badakizu, dandy barik, bakarrik ixengo zara unenteraode-aldea.

Signed: Matt O'Rianow

GURE BAZTERRAK

ARSUAGA KALE PARTIKULARRAREN ESANGURAREN INGURUAN



Kale txikia dogu Begoñako elizateko Santutxu auzoko hau. Kalea bera Karmelo kalearen eta Elizondokoaren artean dago, eta bi-biak batzen ditu.


Kale honek dauan izenak berak dinoan legez, jatorri berezia dogu aztertu beharrekoa oraingo honetan. Izan ere, Eloi Arsuaga

etxeginak paraje honetako lur batzuk erosi zituan, hau da, goian aitaturiko hiru kaleok batzen dituan. Bada, etxegile horren jaubetasunaren mendeko lur-sailean dago Arsuaga kale partikularra. Orube horren ganean, etxebizitzak eraigi ziran Karmelo eta Elizondo kale bien artean, eta kale bion arteko komunikazioa laga behar zan ezkerreko, batzibide hau laga zan, eginkizun ha betetzeko.

Eloi Arsuaga Gómez Secares herrian (Kantabrian) jaio zan 1932. urtean. Bere jaioterritik etorrita, gazte-gazterik hasi zan etxeak egiten, ezik 1950. urtean ekin eutson beharkuntza horri, bere anaia José Luissegaz batera. Urte luzeetan zehar jardun dabe langintza honetan Bilbon eta Bizkai osoan.

GOTZON LOBERA REVILLA

BOLUETAKO ZUBIBARRI



Zubibarri esaten zitzaien zubi zaharra San Anton elizaren ondokoa zelako. 1762-1766 urte bitartean eraikia. Arkitektoa, Alejo de Miranda. Harri landuez eginiko bederatziko arkuduna. Zubia 1762 hasi zen egiten Bizkaiko Jaurerriaren eskutik. Pancorborako bidearen zatia zen. Errepide horrek garrantzi itzela lortu zuen.

Jaurerriak, Bilboko Udalak eta Bilboko Kontsulatuak -merkatarien elkarteak- finantzatu zuten.

Zubia 1981eko otsailean zaharberritu zuten. Errepideak zazpi metro zabal utzi zuten eta alboetan 2,5 metroko espaloi bana.

Errekaren eskuinaldean Bilbao dago; ezkerrean, Basauri eta Etxebarri. Azken hauek zubiaren ardatzaren arabera banatzen dira.

IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:

berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Etxebarria, Irune
Berro, Iratxe Ruiz,
Erdoitza Martínez
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi.
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso
Perez, Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde, Igor M.
de Vidales, Santutxuko
Berto Eskola, Iñaki
Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Zuriñe Martínez

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.200

JUSTUEGUNE, EUSKALGUNE

Mahatsorrien erromeriak euskara eta
giro ederra batu zuen beste behin



Abuztuaren lehenengo zapatuan, hilak 4, mahatsorrien arteko jai eguna izan da aurten. Justu santuaren omenezko egunak beste behin umore ona eta euskal giroa batu zituen Arbolantxan lehenengo eta Tetuaneko landan gero. Otxarkoagako Pa Ya konpartsakoen programak egunpasa polita egiteko modua eman zuen.

*Testua: J. Larrazabal
Argazkiak: Koldo Urrutikoetxea*



**IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO**

Santutxu kalea, 46
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoeb.com/Spedro
Santutxu kalea, 37 E-Mail: iban.lopez@navigatia.com
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE**

GABRIEL RESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

94 412 82 74

O.P.E.: 02/9/97

CYBER TIME
Ordenagailua gurea da
ideiak, zureak

Sarean jolasak
Internet
Inprimaketa
Eskanerra
Datu grabaketa...

Aita Pernet, 1
48004 Santutxu
Bilbo
Tfnoa/fax: 94 459 74 06
E-mail: cyber-time.euskalnet.net
http://www.cyber-time.euskalnet.net

BERTSOLARIAK TOURREAN

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Begoñako elizate zaharreko bazter guztietatik etorritako mahatsorriak Arbolantxan batu ziren Justueguneko goizaldean. Bertan, Goikoetxe base-riaren aurrean, mezea eman zuen Begoñako parrokoak.

Segituan, txokolatea banatu zen zeruan bolanderak jaiaren mezua zabaltzen zuten bitartean. Goikoetxeko etxaurrea herriko plaza bihurtu zen eta bertan Manolo Legina akordeoilari mahatsorriaren jardunak gazte eta zaharrak, gizon eta andrak dantzari jarri zituen. Ez zen bakarrik egon, hagaz batera panderujoleak aritu ziren eta.

Behin anak nekatuta, txokolatea agortuta eta giroa apur bat lasaituta, erromesek gorantz jo zuten, Tetuane-ko landara. Han goian erromeriaren bigarren zatia egin behar zuten eta.

BERTSOLARIAK


Justueguneko bisitariari ongi etorria emateko goi mailako ekitaldia prestatu zuten Pa Yakoek: bertso saio bikaina hain zuzen. Euskal Herriko txapelduna, Bizkaiko txapelduna eta Gipuzkoako bertsolari gazteetatik helduene-ko bat.

Andoni Egaña, Igor Elortza eta Jexux Mari Irazuren bertsojardunaz gozatzeko ehunen bat lagun batu zen. Gehienek belar gainean jarritako aulkietan jesarri ziren baina beste batzuek zuhaitzen abarpeko geriza nahiago izan zuten. Eta ez zen falta izan txosnako barratik bertatik ere entzutea gurago zuena, edariak eskurago eukitzeko edo.

Bertsolarien lanaz guk zeredozer esatea baino hobea du irakurleak ondoko orrietara jotzea, bertan bertso ale aukeratu batzuk jarri ditugu eta...

Bazkaldu aurrekoak hartu eta gero herri bazkarian batu ziren hainbat mahatsorri marmitari astindu ederra emateko asmoz. Bapo jan ostean, mahaiak bertan zeudela, mus txapelketaren eta herri jokoen ordua heldu zen. Musean bikote pilo batek hartu zuen parte. Eta herri kiroletan giro itzela sortu zen sokatira eta txinga-eruteren inguruan. Apustu paperak be bete zituzten, hain giro bizia izan zen.

Arratsaldeko plana dantzaldiarekin zarratu zen, ilunbea nagusitzen hasi zenean. Mahatsorrien erromeria datoren urtera arte despeditu zen.



Hona hemen Joxin Iturriozek bertsolariari jarritako lanetako bat:

Igor Pirineotara joan da eta hor dago Luz Ardideneko igoeran. Andoni "Laiseka" agertu denean aldarri bizian egin du animoak emateko. Jesus Mari "Haimar Zubeldia" pasatu denean, oster, ez dio kasurik ere egin.

Doinua: Hiru Trukuren "Kontu barri bat suzedidu da..."

Igor Elortza:

Barka egizu ez neban gura
Zuri mina egiterik
Asteburu osoa daroat
Patxarana itzi barik

Jesus Mari Irazu:

Zuk patxarana itzi barik ta
O(r)ain ez dezu indarrikan
Baina animatzen ote dituzu
Bizkaitarrak bakarrikan

Andoni Egaña:

Zaleek, gauza normala da ta,
Be(g)irutzen dute puntara
Zuk lasai, Haimar, une hauetan
Den-denok Laiseka gara

Igor Elortza:

Eta Laisekak emoten deutso
Euskal Herriari fama
Niretzat beti faboritua
Lehenengo pasatzen dana

Irazu:

Laiseka ere begiratuta
Ze txirindulari puska
Jaio zenetik Pirineoak
Bizkarrezurrean dauzka

Egaña:


Zubeldia berriz lider heldu zen
Ta ibili bedi kontuz
Azkenerako bukatu baitu
Ur bidioiak garraiatuz

Elortza:

Lehen be esan dot lehenengo pasau
Ta niretzat onena hau
Baina zu ere ezautzen zaitut
Jarraitu gogor Chaurreau

Irazu:

Adarra jotzen hasi al zera
Ta neri falta gogoa
Ia ezinean nijoa eta
Zuk eman bultzadatxoa



Egaña:

Bultzadatxoa neri eskeini
Ta saiatu zaite bero
Helmugaraino heldu liteke
Pitin bat bultza ezker

Elortza:

Orain jaso dot proposamena
Eta nago onartzeko
Ni koadro gainean jarri
Ta besoak altxatzeko

Irazu:

Eskubiderik ez dago eta
Hauze da tratua tristia
Barkatu baina nik Ardanzari
Esango diot guztia.

Egaña:

Luz Ardidenen kontrariorik
Txarrena nor ote kasik
Ez Armstrong ez Ulrichikan
Patxaran usaia baizik

Elortza:

Lehenago Chaurre ohiukatu dot
Eta txikia tokatu
Kontxo barkatu Etxebarria
Ia ez naz konturatu

Irazu:

Txorakeririk ez dezu hemen
Nere aurrean esango
Aizu barkatu zu ez zera ba
Bertsolaria izango

Egaña:

Azkenerako Luz Ardidengo
Etaparenertzako zen

Hasi behar det ospatu asmoz
Eskeletoa mugitzen

Elortza:

Bigarrengean be konfundidu
Egingo nintzan agian
Barkatu zeu be oso ona zinen
Mila zorion Julian

Irazu:

Honen ordainak izango dira
Finalaren egunean
Gora Euskaltel kantatuko det
Poto egiten dezunean.

Egaña:

Euskalzaleek bete dituzte
Makina bat bidebazter
Zorionez denak gustora
Nire garaipenari esker.

Elortza:

Oraintxe daukat eskakizun bat
Tipo honi luzatua
Nik Laisekagaz agertu nahi dot
Atara erretratua

Irazu:

Erretratua nahi al zenduke
Baina ez dio inporta
Ubalduakin irtengo zera
Nik muturreko bat jota

Egaña:

Bostehun bat kilo izan gintezke
Igor eta ni batera
Bertikalean ez gera sartzen
Apaisatua atera.

Begoña eta Euskerea



Maipu: menua... kafeagaz 55 pezeta.

Testua: J.Etxebarria "Txabola"

Gure orduko (1940-1965) mahatserriko ambientea dala eta aitatu genduan Sindikatua, Maipu ta Leonorren tabernak. Lehenengoa egin genduan san isidro dala eta aprobetxatuaz, goiazen ba Maipu tabernarena azaltzen. Edifizio bera 1932-rako egin zan, kontratistek Perez Galdos kalean egoan etxe baten hondakinak berrerabili zeurien, jausi edo bota eta gero, Maipu deitzen zan eta hortik etorren izena. Etxebizitzak ziren eta bekoa, hasieran, dendea zan.

Dendan danetarikoa saltzen zan: jatekoa, janztekoa ta edatekoa, ardoa etxera eramateko zein bertan porroixuetan edateko, kanpoan egoan platanondoen gerizpean, hormaren kontrako bankoetan jesarrite.

Ikusite jende asko ta inguruan lokala gitxi zala tabernea be zabaldu zeurien, denda alboan, eta holan hasi zan asuntoa, astegunetan Etxebarria eta beste fabriketatik bueltan ingurukoak txikiteoan joaten ziren, baite Arbo-

lantxatik Bilbora bajatuteko baserritarak etxerantzako bueltan, bendejak eruten, errekaduren bat eiten edo Begoñako elizara funeralaren batetara joanda, honeik aprobetxatu bear izaten zeurien, gitxitan urteten ziren soloetatik, .. ta bidea be luzee..

Jai egunetan Bilbo, Santutxu, .. eta beste auzoetako jendea joaten zan meriendetan eta tragotxo hartzen. Txakolinaren sasoiari Madariagan makailua ta txakolinagaz meriendau ostean bertara joaten zan kafe ta kopatxo hartzen, ..eta etxean dendako zeozer bear izan ezkerro tragoa hartu eta errekadutxue eskatu barran, atetxo bat egoan eta holan, naiz eta domeka izan eta ultramarinok saltzea debekatuta egon, ba...tire, serbidu eta saldu be egin bear isi-isililean.

Otxarkoagako obrakaz batera kapitulo berri bat zabalduzan, menuak hasi ziren ematen eta, 55 pta kobratzen zan, kafe eta guztiz, orain dala 30 bat urte, sasoi horre-

tan etxeak egiten zegoen jendea joaten zan bazkaltzera astean zear, asteburuetan inguruko jendea, bai afariak zein meriendak, zerbezera moduan, poteo eta kartak, eta kanpoaldean "rana", ddi-dda, klanka, klanka ...ta glub!, barrura.

Bere itxurea oso berezia, edifizioaren aurrekaldeak arbolak eukazan, eta banku batzuk partaren kontra, han gelditzen ziran bizikletaz urteten zeurien ingurukoak, dendan platanoa batzuk erosi ta indarrak berriro hartuten, tertuliak, eta zaratak han izaten ziran, porroien erruz, ta zelaie kakauten azalaz beteta zapatu domeketan, azeituna azurrekaz batera.

Erdian etxebizitzetako portala egoan eta eskumeko partean etxetxo bat, denda zana, tabernako sarrerea eskumeko ezkinatxoan egoan. Sartu ta eskumeko partean barrea, honek erdian zutabe bat eukan eta amaierako buelta bat, bertan amaitzen zan eta jantoki eta zerbezera zatietarako atea egoan, ezkerreko partea libre egoan, mahai eta aulki batzuk kartetan egiteko, eta azkenean sukaldeko atea, usain goxoa dariola.

Barraren barruko partean apalak eta, edariak fresko gordetzeko, kamarea, egurrezko ate marroiak, sendoak, zilarrezkoak ematen zeurien serrailak eta krisketak dizdiratsuak, itzela zan eta gaur egun berdin berdin jarraitzen dau Maipu berrian, bere gainean, apaltegian erdian, pattarra, koñaka eta bestelako botila klase guztien artean, alkoholaz inguratute, karteltxo ikusgarri bat, izpilian pintatuta, belle epoque estilokoa edo, modu alai eta bitxi batean tabernaren izena adierazten.

Horrela iraundu zeban giroa, auzoko baserriak eta etxeak botatzen hasi arte. Bertakoek beste auzoetara emigratzeari ekin eiotsien, naiko urruti batzuk, eta ondorioz jende gitxiago joaten zan, egoan be askoz gitxiago egoan ta. Gitxiago baino joan, eta holan etorri zan Maipuko historiaren hirugarren zatia, harrizko labak ipini eta ambientea berriro sortzen: kalitate, eskue eta ...bierra asko izan ziren berpiztearen giltzak, naiz itxurea kanpotik exkaxa (zarra eta ezin konpondu expropiatino dala eta) ospe handia hartu eban, jendeak baekien eta barruan barrukoa ondo beteko ebal, bete ta busti be. Leloren bat baino geiago atean gelditu zan, sartu barik, pentsaurik halako azal motzaren barruan intxaur onik ez zala egongo.



Horrela iraundu zeban giroa, auzoko baserriak eta etxeak botatzen hasi arte.

Bertakoek beste auzoetara emigratzeari ekin eiotsien, naiko urruti batzuk, eta ondorioz jende gitxiago joaten zan, egoan be askoz gitxiago egoan ta.

Gitxiago baino joan, eta holan etorri zan Maipuko historiaren hirugarren zatia, harrizko labak ipini eta ambientea berriro sortzen: kalitate, eskue eta ...bierra asko izan ziren berpiztearen giltzak, naiz itxurea kanpotik exkaxa (zarra eta ezin konpondu expropiatino dala eta) ospe handia hartu eban, jendeak baekien eta barruan barrukoa ondo beteko ebal, bete ta busti be. Leloren bat baino geiago atean gelditu zan, sartu barik, pentsaurik halako azal motzaren barruan intxaur onik ez zala egongo.

Bazkide txartela

Izen deiturak:

ENA zenbakia:

Helbidea:

Herria:

Posta kodea:

Telefona:

Lanbidea:

Jaioteguna:



ASAPALA
KULTUR ELKARTEA

Iturriaga 55 1 Ezkerra 48004 Bilbo
Telefonoa 94.47354.48
E-posta: asapala@euskalnet.net

Partehartze mota:

Bazkide soila

Ekintza jakinetan laguntzaile

Lantaldeko partaidea

Ordainketa:

Kontu korrante bidez



Asapalaren kontuan

3035 0071 6 071 105864 2

Kuota korrante bidez

500 pta

1000 pta

2000 pta

pta

IDUNA,

Santutxuko emakume gazteen taldea

Hamar urte darama lanean jo eta ke

Iduna taldea duela hamar urte inguru sortu zen emakumeen arazoan aurrean lan egiteko xedez. Orduantxe, emakumeak antolatzekeo beharra ikusten zen eta ez zeudenez emakumearen problematika lantzen zuten talde nahiko Iduna martxan jarri zen. Batez ere emakume gazteen arazoei aurre egiteko sortu zen.

Testua: Joana Etxebarria
Argazkiak: Iduna / Iñigo Azkona



Egun,ildo beretik jarraitzen dute eta emakume hel- duagoi zuzenduriko zenbait erakunde daudenez, hauek neska gazteek pairatzen dituzten arazoetan buru belarri sartzen dira irtenbidea aurkitu asmoz. Idunak bi atal ditu; alde batetik taldea eta bestetik konpartsa. Lehenengoan zazpi-zortzi pertsonak dihardute lanean eta urte guztian zehar dabil martxan. Konpartsa, aldiz, berrogei bat neska osoturik dago eta data espezifiko batzuetan funtzionatzen du. Adibidez, Inauteri eta Santutxuko jaietako hainbat ekintzatan, kalejira, antzerkiak...

Aipatu ditugun daten artean ziur askok ikusi duzuela inauterietan neska talde hau mozorroturik. Pil-pil dagoen gai bat hautatzen dute eta desfilean parte hartzen dute. Esaterako, duela hiru urte Barbik 40 urte bete zituela aprobetxatuz eta gorputz estereotipatuaren aurka aldarrikapena egiteko, panpina honetaz disfrazatu ziren. Bestalde, Chiapaseko indigenen martxa erraldoi hura egin zenean Chiapanekaz mozorroturik ikusi ahal izan genituen eta beste baten emakume borrokalariz, argazkian ikus daitekeen bezala.

BABOSOEN KONTRA

Data berezi hauetaz gain asteroko lanari dago-

kionez, Sorgintxulon biltzen dira. Bertan arazoak hausnartu eta gai desberdinen inguruan lan egiten dute. Aurten adibidez "babosen" aurkako kanpaina batean murgildu dira. Bilbon koordinadora bat dago non Irala, Alde Zaharra, Errekalde eta Indautxuko emakume taldeak biltzen diren eta bertan "baboso" hauen kontra zerbait egiteko premia sumatu zen. Izan ere, emakume gazteak jai giroan hitzez eta ekintzez eraso ugari jasan behar izaten ditu. Horrela ba, Idunak autodefentsa ikastaro bat antolatu zuen eta erasoan alderdi fisiko zein psikologikoak landu zituen.

Diruaren kontuari dagokionez, Idunak autogestioaren bitartez funtzionatzen du ez baitu inongo subentziorik jasotzen. Talde alegal bat da; hau da, ez da legala inon inskribatu ez direlako baina ezta ilegala ere. Horrela, duela urte batzuk pegatinak salduz eta pernilen zozketak eginez, esaterako, dirua lortzen zuten bitartean, egun, Santutxuko jaietan txosnan txandaka lan eginez eskuratzen dute dirua.

EMAKUME BILGUNE

Ikasturte berriari begira proiektu berri bat dute neska hauek eskuartean. Sorgintxulon beraiantzako



gela bat lortu dute jada eta hau egokitu ondoren bi funtzio eman nahi dizkiote. Bate- tik, artxibo berezi bat sortu nahi dute mota guztietako dokumentuekin; bai aldirikariek, bai sindikatu eta alderdi politikoaren dosierekin eta baita zenbait libururekin ere. Gainera teteria antzeko bat sortu nahi dute emakumeen bilgune bihurtu dadin.

Bestalde, epe luzeago bate- tara begira, Idunaren erronka- rik handiena den asmo bat gauzatu nahi dute. Aipaturiko gela hori emakumeen asistent- zia gunerik bilakatu nahi dute. Taldekideak ez dira medikuak

ezta abokatuak ere baina badakite arazo baten aurrean ze prozedura jarraitu behar diren. Beraien lana abokatu bat aholkatzea, medikuagana lagun- tzea, argibideak eta laguntasuna ematea izango li- tzateke tratu txar fisiko zein psikologikoen aurrean.

Tamalez, horrelako taldeak beharrezkoak dira oraindik; izan ere, emakumeak orokorrean bizitza- ko zenbait arlotan zapalduak daude oraindik ere. Idunakoak emakume gazteak direnez adin honeta- ko nesken arazoetan sartzen dira nagusiki. Baina argi daukate emakumeak emakume izateagatik zail-



tasun gehiago edukitzen dituztela bai kartzeletan, bai lan munduan eta beste hainbeste esparrutan.

Beraien ustez, ezin da esan neska gazte guztiak maila berdinean arazo honetaz kontzientziaturik daudenik. Bestalde, instituzioetatik azkenaldian berdintasuna lortu dela esaten den arren berai- entzat garbi dago asko lortu bada oraindik ere askoz gehiago lortu behar dela. Gauzak horrela, ilusio handiz Idunak lanean jarraituko du Santutxu auzo- an.



GURE TOKI IZENAK EUSKARAZ ZELAN Euskaltzaindiak txostena egin du Bilbo osoko leku izenak zeintzuk diren zehazteko

Euskaltzaindiak Bilboko toki izenak euskaraz zelan erabili diren finkatzeko txostena egin du, Mikel Gorrotxategik sinatua. Lan hori Bilbatu euskara elkarteak zabaldu du azken hilabeteotan. Datozen lerroetan gure bazterretako izenak Euskaltzaindiaren iritziz zelan esan behar ditugun argituko dugu.

Testua: H.O.

Argazkiak: Iñigo Azkona

Begoñako elizate zaharreko bazterrei dagokienez, auzo gehien izenak gaur egun ezagutzen ditugun legez erabiltzeko dio Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak paratutako txostenak. Otxarkoaga, Txurdinaga, Santutxu, Bolueta, Begoña, Urbarri, Zurbaran eta Solokoetxe euskal izen jatorrak dira eta horrelaxe mantendu dira mendeetan zehar.

Alor horretako hiru aldaketa nabarmen baino ez dakarte euskaltzainek. Batetik, gaur egun Castaños esaten zaion alderdiari bestelako izena ematen diote: Begoñaibarra. Izan ere, alderdi hori Begoñako elizate zaharreko ibarra zen eta gaur egun Campo Volantín esaten duguna garai batean ibarra izena zeramala jakin badakigu.

Begoñaibarra azken urteotan Bilbon puri-purian dabilen beste izen baten parekoa da: Abandoibarra hain zuzen ere. Eta Deustuk ere bere Deustuibarra dauka, erdaraz Ribera de Deusto esaten dena.

Begoñaibarra Castaños izenaren orde ez erabiltzeko dio Euskaltzaindiak, baina auzoari dagokionez bakarrik. Izen bereko kaleak, oster, horrelaxe segituko du euskaldunontzat, Castaños kalea alegia.

Bigarren aldaketa lehendik ere entzunda gaude, oraindik ere belarrian bitxia egiten zaigun arren. Ciudad Jardin euskaraz zelan esan behar dugun galderari Euskaltzaindiak Loruri erantzuten dio. Badauka, beraz, beñe izen euskalduna alderdi mahatsorri horrek ere.

Eta hirugarren sorpresa historiarekin lotuta dago. Iturrialde auzoari -Iturribide kale inguruari- Askaoerreka esatea gomendatzen du Euskaltzaindiak. Txostenak zehazten duenez, "batzuek, eta EUSTATEk hala dakar, Iturribide proposatu zuten, baina inguru horrek izena du Askao, nahiz eta orain batzuek kale bat besterik ez dela pentsatu.



Goian: Atxuriko Camino del Bosque kaleari Basobidea esan behar zaio. Ezkerrean: Castaños aldearen euskal izena Begoñaibarra da.

Iturribide kalea Askao erreka dermion dago, Askao erreka izena baita, eta gogoratu behar da Iturribide kaleko iturria Askaoko iturria zela. Gogoratu, bestaldetik, Askao erreka 1500 urtean agertzen dela lehendabiziko aldiz Bilbo barruan, lehenago XIV-XV. mendeetan Begoña baitzen".

Izan ere, XVIII. mendean Begoñako auzoetako bati erdaraz "la fuente de Ascao" esaten zitzaion. Duda barik, horixe dugu gaur egungo Iturribide aldea.

KALEZ KALE

Kaleei dagokienez, Euskaltzaindiak badakar aldaketarik. Urbarri, Begoñaibarra eta Zurbaranetik hasita, Amistad Cooperativa Adiskidetasuna auzune bihurtzen da. Doce Amigos Cooperativari, ordea, Doce Amigos auzunea esan behar zaio. Begoñaibarrako Campo Volantín ere horrelaxe mantentzen da euskaraz baina Hertas de la Villa kaleari Uriortu izena ematen dio Euskaltzaindiak.

Urbarriko eskoletako landa izena ere badakar txosten horrek eta Artasamina kalea euskara jatorrean Artatzamina dela ere jakinarazten du.

Begoñako Virgen de Begoña kalearen kasuan euskaldunok Begoñako Andra Maria kalea erabili behar dugu. La Cruz auzoari Gurutze auzoa esaten dio Euskaltzaindiak. Etxebarria parkea bere horretan uzten du euskaltzainek txostenak. Camino del Polvorín, oster, Etxebarria parkearen ondo-ondoa dagoena, Polberetxebidea esan behar dugu euskaraz.

Artxandako Santo Domingo gainari jatorrizko izen zaharraz deitza proposatzen badu ere, Euskaltzaindiak ez du izen berriago bazterretan. Horrela, Egirleta (Santo Domingo) hobesten du. Mendiekin jarraituta, Avril tontorrari jeneral frantsesaren izen arrotza kendu eta deitura euskaldun jatorra itzultzearen alde agertzen da txostena. Ondorioz, Avril mendiarri Iturritxualde izendatzeko deia zabalitzen du.

Santutxu eta Atxuri arteko bideari Camino del Bosque esaten zaio aspalditik. Euskarazko izena erabiltzeko diote euskaltzainek: Basobidea. Eta Encarnación plazari, Enkarnazioa esan behar zaio. Haren ondoan, aldatsean apur bat gora eginda, Ollerías auzoa dauka, bere bi kaleekin, Ollerías

**"CASTAÑOS AUZOAREN
EUSKARAZKO
IZEN JATORRA
BEGOÑAIBARRA DA"**



Iturribideko iturria. Askaerreka da inguru horretako izena.

Altas eta Ollerías Bajas. Kasu bietan Euskaltzaindiak Ollerietia izena hobesten du. Ondorioz, Ollerietagoiena eta Ollerietabarrera dira bi kaleok izendatzeko modurik eta egokienak.

LARREAGABURU

Kaleen atalean Miraflores estrata eta izen bereko etorbidea onartzen ditu Euskaltzaindiak. Baina Miraflores-Larreagaburu viaductori euskaraz Larreagaburuko zubia deitzea proposatzen du, ondoko argudio honekin: "Miraflores izena kaleta eta estrata banatan dagonetik ez dirudi egokia denik izena hirutan agertzea eta egokiagoa da bertako izen zaharra, Larreagaburu, soilik erabiltzea".

Ez da hori txostenak Larreagaburu izena suspertzearen alde egiten duen saio bakarra. Larreagaburu/Mina del Morro izena darabil gaur egun etxe berriak eraikitzen ari diren alderdi horretarako. Meategia egon zen mendiari Larreagaburu esaten zitzaien aspaldian. XVII. mendeko matxinadarik famatueneko buruzagiak Larreagaburuko urka-

**"LARREAGABURU,
EGIRLETA ETA IBAIZABAL
GISAKO IZENAK SUSPERTU
NAHI DITU
EUSKALTZAINDIAK"**

mendian hil zituztela kontatu ziguten garai hartako kronistek.

Eta azken ohar bat. Mahatserriko bazterrak milizkatzen dituen ibaia ez da Nerviön edo Nerbioi. Izen historiko eta jatorra Ibaizabal da. Horrelaxe esan zaio Bilbon mendez mende ia atzora arte. Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak ere Ibaizabal aldarri-

katzen du izen jator gisa.

Bilbatu elkarteak zabalduetako lan honek Bilboko kale eta auzo guztiak dakartza bere izen ofizialekin, erdarazko izenarekin eta euskarazko izen zuzenarekin. Gehiago jakin nahi duenak jo beza interneteko helbide honetara:


www.euskalnet.net/bilbatu.

Berton Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen txostena topatuko du, eranskinak eta guzti, baita Bilbaturen irizpideak, eta elkarte horrek ekainean egindako mintegiaren materiala ere. Hemenetik aurrera ez daukagu gure toki izenak erdaraz esateko aitzakiarik.

e l k a r r i z k e t a

URTZI URRUTIKOETXEA

"Mugitzen naizen girotik jasotzen ditut kontatzekoak"



Euskal literaturan azken urteotan sona lortu du Urtzi Urrutikoetxearen izenak. Eta ez da txiripaz izan. Gazte mahatsorri hori Arabako Ernestina de Champourcin (1996) eta Irun Hiria (2000) literatur sariak irabazita dago. Hortik "Borroka galduetatik gatoz" (1997) eta "Utzidazu karmina kentzen" (2001) poema liburuak atera dira argifara. Gainera, ETBn dihardu lanean eta hainbat komunikabideetan izkiribatzen du. Idazle, kazetari, bertsozile, euskaltzale... Urtzi Urrutikoetxea gazteak badu zer kontatua.

Testua: Irune Berro Urrizelki / Argazkiak: Iñigo Azkona



1997an zure lehendabiziko liburua, "Borroka galduetatik gatz", argitaratu zenuen. Hemeretzi urte baino ez zenituen. Zelan bururatu zitzaizun halako lan horretan murgiltzea?

Ni Santutxuko Bertso Eskolan hasi nintzen eta nik eginen nuena zen bertsoak idatzi. Horrela, bertsoekin, Urruzuno saria irabazi nuen. Saria Europatik zehar bidaia bat izan zen eta bertan, hogeitaz lagunekin batera egin nuen bidaia hartan, poesia gustatzen zitzaion jendea ezagutu nuen eta batzuk besteen lanak irakurtzen hasi ginen. Hor ni ere idazten hasi nintzen.

Urruzuno lehiaketak institutu garaiako lehiaketak dira eta horien ondoren egon zen beste lehiaketa bat mugarri izan zena nolabait. Arabako Ernestina de Champourcin sariketa izan zen hau. Poema batzuk nituen eta bidaltzea pentsatu nuen. Lehiaketa irabazi nuen eta idazle gaztea nintzelako edo boom handia eman zioten. Susa argialetxetik deitu ninduten. Niretzat hori flash bat zen. Nik zortzi poema baino ez

nituen; beraz, liburua osatzeko poemak idazten hasi nintzen.

Hortaz, ez zenuen inolako zailtasunik izan zure lanak argitaratzeko.

Bai, alde horretatik zortea eduki dut. Badakit jendea dagoela argialetxeei lanak bidaltzen dizkiena eta ezer argitaratzea lortzen ez dutenak. Bai, ni alde horretatik pribilegiatu bat izan naiz.

Zortzi poema horiei beraz, beste batzuk gehitu eta "Borroka galduetatik gatz" argitaratu zenuen. Liburu arrakastatsua suertatu zen eta bigarren edizioa ere atera zenuen. Zer dela eta lehenengo liburua izanik arrakasta hori?

Bai, lehenengo edizioa Durangoko azokarako atera genuen. Han ni ere geratu nintzen harrituta, liburuak sinatzen egotea ez zelako normala niretzat. Oso gogorapen polita daukat eta liburua oso ongi saldu zen.

Ondoren editoreak bigarren edizio bat atera behar zela esan zuen. Arrakasta? Alde batetik prentsa berak nahikoa tarte eginen dio gauza hauei. Zein idazle zein liburuarekin datorren zain egoten da. Bestalde, nire kasuan behintzat argialetxeak publizitate kontu hori nahikoa ondo landu zuen. Honetaz gain, guk ere egin genituen rezital batzuk herriz herri...

Esperientzia honetan oinarrituta, zein aholku emango zenioke idatzi nahi duen gazte bati?

Oraintxe esan dudana bezala, prentsa zain egoten da idazle berririk ba ote dagoen, honek zer dakarren eta abar. Beraz, alde horretatik ez da zaila. Lehiaketekin eta, nik esango nioke ez desesperatzeko eta argialetxeetara lanak bidaltzeko. Bertan jarrera zabala izan ohi dute. Horrek ez du esan nahi argitaratuko diotenik baina... Harkaitz Canok esaterako lan bat bidali zuen eta hura argitaratuko ez ziotela esan zioten baina beste bat idazteko eta bidaltzeko.

Bizi ahal da gaur egun literaturaren-gandik?

Ez, euskaraz ez. Gero beharbada itzul-pengintza izango da ate bat zure lana itzultzen bada edo baina printzipioz euskarazko literaturatik ez.

Idaztetik igual bizi zaitezke; hau da, zuk egingo zenituzkeen ipuin edo poemaz gain gidioak idaztea, prentsarako artikulak idaztea,... Honen okerrena da hainbeste idatzi ondoren zure lan propioak egiteko astirik edo gogorik ez izatea.

Umeek gero eta gutxiago irakurtzen dutela diote. Liburu edota ipuin bat irakurtzea baino nahiago omen dute telebista piztu. Zein iritzi duzu honen gainean?

Egon zen momentu bat oso itxaropentsua. Orain dela 25 bat urte euskaldunak bazeuden baina orokorrean erdaraz ikasitakoak ziren. Ez zeuden euskaraz alfabetatuak eta ez zegoen batuarik. Baina ikastolen sorrerarekin dena eginda zegoela uste zuten. Jendeak euskaraz ikasiko zuela eta ondorioz euskal literaturak gora egingo zuela. Baina ikusi da ezetz. Norberaren bizitzan eskolak eragin oso mugatua du baina hortik kanpo familiak, komunikabideak eta beste gauza batzuek ere badute eraginik. Hala ere, gero eta gehiago dira telebista aguantatu ezin dutenak. Batzuk bai, batzuk telebistak dakarrena bete-betean onartzen dute eta hura ikusi, baina beste askok telebistari eskatu eginen diote eta gusturik aurkitzen ez badute, ez dira dagoenarekin konformatzen.

Umeen alorrari dagokionez, umeei ezin zaie irakurtzera behartu. Umeek etxean ikusten duten jarrera jarraituko dute normalean eta beraz, umeari irakurri ahal izateko bitartekoak ematea inportantea da. Gutxieneko liburutegi bat izatea etxean, altzariekin ondo jotzen duten lau liburuez aparte noski, bitarteko egoikia da. Hala ere, ez dira zertan liburuak erosi behar irakurri ahal izateko, liburutegi oso majoak daudelako. Beraz, nire ustez ume batek eskuragarri eduki beharko lituzke liburuak, komikiak edo dena delakokak.

Hiru urte dira ETBn zabilzala eta Garan, Euskaldunon Egunkarian, Argian eta Jakinen ere idazten duzu. Ernest Hemingway, Gabriel Garcia Marquez eta George Orwell ere aldi berean idazle eta kazetariak ziren. Nola uler daiteke hain subjektiboa den literatura eta berez objektiboa izan beharko lukeen kazetaritzaren arteko lotura?

Bietan, bai kazetaritzan bai literaturan idatzi egin behar da. Kazetaritzan agian eskema itxiago bat dago literaturan baino. Hala ere, ez pentsa eskema hori hain itxia denik. Gaur egun bide batzuk egin daitezke beti ere objektibotasuna ahalik eta gehien bermatuz. Hitz batzuk beste batzuk baino karga semantiko handiagoa dute eta Euskal Herrian oso kontuz ibili behar dugu edozein albiste ematerakoan hautatzen dugun hitzaz. Beraz, bide desberdinak landu daitezke kazetaritzan baina beti ahalik eta modu zuzenean lan eginen ahaleginduz.


Literatura aldiz, guztiz kontrakoa da. Nahi duzuna idatzi ahal duzu eta adjektiboak erabil ditzakezu kazetaritzan erdi debekatuta baitituzu.

Zer esango genuke hortaz, kazetariarentzat literatura dela bere eguneroko lan aseztiko eta zehatzetik ihes egiteko bidea?

Bai. Gainera kazetari izatean jende asko ezagutzen duzu eta horrek gero zeuk zurea idazteko balio duzu. Adibidez ni iaz ETBko albistegi lokaletan ibili nintzen eta bertan nintzela pertsona desberdinen istorio pertsonal asko ezagutzeko aukera izan nuen. Hauek, izenak eta beste gauza batzuk aldatuta, ipuinak idazteko ideia asko eman zizkidaten. Politikak igual ez hainbeste baina eguneroko istorioek gauza asko ematen dizkizute idazteko. Ez zara urruti joan behar kontatzeko istorio polit baten bila, hemengo kaleetan bertan topa ditzakezu.

Beraz, zure lanak idazteko eguneroko pasadizoak jasotzen dituzu.

Bai, ni mugitzen naizen girotik jasotzen ditut kontatzekoak, Santutxuko taberna baten nagoela, parrandan nagoela....Beno, gero agian ez ditut denak zehatz-mehatz kontatzeko baina horietan oinarrituta idazten dut. Lanerako egindako elkarrizketa bat albistegietan minutu batean laburbildu beharko dut baina nik badaikit elkarrizketa horrek istorio gehiago duela edo imajinatu ahal duzu... Ba horrek guztiak erabiltzen ditut



ginen hizkuntzen legea dela eta. Gogorra izan zen egun erdia kotxean pasa genuelako baina itzuleran bideo polita egin genuela uste dut. Ni euskaldun izanik, beti gustatu izan zait jakitea besteak ere nola bizi diren, ez garelako gaztelera ez den hizkuntza bat dugun bakarrak. Gainera ez dut uste internazionalismoa Chiapasera mugatu behar denik. Inguruan ditugun herriak ere kontuan hartu behar ditugu nire ustez.

Orduan ba, Aragoien gertatzen dena kontatzea oso polita iruditu zitzaidan.

BERTON aldizkariko sortzaileetakoa zara. BERTON adibide dugula, uste duzu herri aldizkariak euskara eta euskal kultura indartzeko xedea betetzen dutela?

Bai, eta nik uste dut beharrezkoak direla. Herri aldizkariak hurbilak dira eta askotan jendeak hurbileko gauzak nahi izaten ditu eta besterik gabe ez bada, BERTON han egongo da etxean eta jendeak orriak pasako ditu eta behintzat hurbileko gauzak izango ditu eskuragarri. Mahatserrian euskara eta euskal kultura indartzeko

saiakera asko daude, gero ez dakit nik nahi beste fruitu ematen duten baina beharrezkoak dira eta hor daude.

Gehiago egin ahalko zela? ba segur aski baina, beno, egiten da eta jendeak buruari eragiten dio. Nik behintzat, alde horretatik ez nuke itxaropenik galduko.

nik idazterako orduan.

Lanbidez kazetaria zara. Zein da orain arte gogo handiagoz eman duzun albistea?

Gauza apala izan zen hau baina nik gaia samurtasunez hartu nuen eta... Aurten Alto Aragonera joan

GALDERA LABURRAK

Janari bat: arrautza frijituak eta patatak

Astebururako plana: mendia, kosta eta parranda

Izen bat: Amaiur

Data bat: Abenduaren 12a

Abesti bat: Mikel Urdangarinen "Lau koplaxo"

Euskal Herriko bazter bat: Santutxu, Mahatserria.

Hirugarren mundu gerra ate joka ote daukagu?



MARIJO (SANTUTXU)

Ez naiz horren beldur. Ez da ezer gertatuko. Gerra etorri ez da etorriko, baina ez dakit.



MARTA (BASARRATE)

Nik ezetz uste dut. Gainera eraso ez da gertatu hemen, Euskal Herrian, orduan ez nau afektatu gehiegi.



NAIARA (AREETA)

Gertatu dena garrantzitsua izan da eta argi dago era batera mundua aldatuko duela. Baina ez dut uste mundu gerra etorriko denik.



IGOR (SANTUTXU)

Ziur nago ezetz. Oso lasai nago. Burutik pasatu bez.



LORENA (ZAZPI KALEAK)

Nik baietz uste dut, zeren eta denok arazoak edukiko ditugu.



GOFFI (SANTUTXU)

Aspaldian hasia da mundu mailako gerra.



IÑAKI (BEGOÑA)

Nik uste dut gerra datorrela baina ez mundu mailako gerra. Estatu Batuek Afganistan inbadituko dute.



ADUR (SANTUTXU)

Ez dut uste mundu gerra etorriko denik. Baina nahiko erantzun fuertea edukiko duela mundu osoan bai.

Etxebarria parkea urbanizatzeko plana aurkeztu behar du Udalak

Arkitektura kabinete bik prestatu dute parkea egokitzeko proiektu berria

Bilboko Udalak Etxebarria parkea urbanizatzeko proiektua agindu die Bilboko arkitektura kabinete bari. Helburua, orain arte antolatutako barik eta parke bihurtu barik dagoen alderdi zabal horri behin betiko itxura egokia ematea. Proiektua, antza, eginda dago, baina oraindik ez da jendaurrean, ezta Udaleko zinegotzien aurrean ere, aurkeztu.


Etxebarria parkea Bilbo barruan dagoen espazio libre zabalena da. Hamazazpi hektarea ziren hasieran baina handik eta hemendik moztetako egin zaizkio. Orain Bilboko Udalak agindu duen proiektuak 152.000 metro karratu biltzen ditu bere baitan. Jose María Gorordo alkatea zenean (1988) fabrika zaharreko orubea erosi zuen -garai hartako 1.000 milioi pezeta ordainduta- zertarako eta parkea egiteko. Asmo horren alde EAJ, HB eta EE agertu ziren, PSOE eta PP kontra agertzen ziren bitartean. Operazio polemikoa izan zen arren, gaur egun ez du inork dudan ipiniko hiru alderdi horiek bete-betean asmatu zutela.

Behin lantegi zaharra eraitsita, hondakinez estali zen bertako zorua eta belarra landatu zen. Zuhaitz batzuk ere jarri dira, baita kaleak antolatuta. Baina landa zabal bat baino ez da; beti egon da diseinu baten zain benetako parke baten itxura hartzeko. Gorordo oraindik alkatea zela, ideia lehiaketa egin zen, baina gero ez zuen jarraipenik izan. Josu Ortuondoren garaian Udalak proiektu bat egin zuen baina kritika latzak jasan zituen ez zuelako helburutzat parke bat sortzea, zenbait ekipamendu eta zerbitzuak eremu horretan sartzeari baizik.

Oraingoan, Bilboko Udalak lehiaketa zahar hartako irabazleak deitu ditu proiektua presta dezaten. Proiektua nahikoa aurreratuta ei dago eta datozen asteetan Udalan aurkeztuko ei da. Hasieran irailean bertan egin beharreko kontua zen, baina azkenean ez da horrela izan.

UDALAREN BALDINTZAK

Arkitektura kabinete bi horiek -IMB eta Mungi- ez dute proiektua nahi bezala gauzatu. Udalak baldintzak jarri ditu, eremu hori antolatzeko orduan ezinbestez bete



beharrekoak. Alde batetik, futbol zelai biak dagozan bezala gelditu behar dira. Logikoa da azken aldirian Mallo-nako futbol zelaia zaharberri eta belar artifizialez jarri dela kontuan hartuta.

Gainera, Bilboko Udalak jaietako barrakak eta bertan ipintzen jarraitu nahi du. Beraz, arkitektoek desio hori bete ahal izateko esparru berezia prestatu beharko dute parkearen barruan. Ezin da ahaztu Bilboko Udalak Etxebarria parkea jaietako barraketarako toki egokitzat jotzen duela.

Azkenik, Bilboko Udalak jarritako hirugarren baldintza inguruko auzoekiko lotura errazak egokitzea izan da. Udal agintariak parkea Panerako etxeekin, Zurbaranekin, Begoñarekin, Gas plazarekin eta Sendeja zein Esperanza kaleekin modu naturalean konektatuta ikusi nahi dute Etxebarriako parkea.

Bilboko Udalak telefono antenak ez ipintzeko erabakia balio barik utzi du EAEko Auzitegi Nagusiak

Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiak behin-behineko auto bat kaleratu du Bilboko Udalak telefono mugikorretako antenak ez ipintzeko hartu zuen erabakia balio barik ixteko. Ondorioz, gure inguruetako auzo askoren poza bertan behe-

ra gelditu da, Iñaki Azkunaren udal taldea (EAJ-EA) izan baita erabaki hori epaitegira eraman zuena. Pentsatzekoa da, beraz, hemendik aurrera Udalak antenak jartzeko lizentziak ematen segituko duela.

Hainbat auzotako kexuak Udalera heldu ostean, oposizio talde guztien babesaz Bilboko Udalaren Osoko Bilkurak sakelako telefonoetarako antena gehiagorako baimenik ez ematea erabaki zuen. Horren arrazoia izan ziren antenok ustez pertsonengan sor ditzaketen kalteak. Hala ere, Iñaki Azkuna alkatea eta bere taldea ez ziren moratoria- ren alde azaldu. Alderantziz, erabaki horren legaltasuna kolokan jarri eta udal legegionei aholkua eskatu ere egin zuten. Hala ere, oposizioak jaramonik ez eta auzoen eskariari babes ematen segitu zuten. Azkenean, EAJ eta EAK auzitegira jo zuten.

Epaitegi nagusiaren ebazpenak herritar asko telekomunikazioetan interesa daukatela hartzen du oinarritzat. Ondorioz, ezin zaio zerbitzu publiko horri muga gaindiezin ipini. Hala ere, horrek ez du esan nahi banan-banan begiratuero gero lizentzia guztiei ezet ezin zaionik esan. Udalak ezin duena egin, epaileen iritziz, muga orokor gaindiezina ezartzea da.

Epaileen erabakiak zehazten duenez, "Udalak edozein jarduera kontrolatzeak ez du esan nahi jarduera hori orokorrean geldiarazi lezakeenik. Kontrola egiteko ahalmen horrek aukera ematen dio baimenak ukatzeko baldin eta ukatzeari eusteko arrazoi juridiko eta tekniko nahikoak badaude".

Behin erabakiaren berri eukita, oposizio taldeek lehengo jarrerari eusten ziotela azaldu zuten. Partido Popular (PP), PSOE, Batasuna eta IU-EB izan ziren moratoria- ren alde agertu zirenak.

AUZOAK KEXUKA

Telefonia mugikorretako antenen auzia izetu zenetik, Bilboko auzo guztietan azaldu dira horrelakoen kontrako



protestak. Gurean, Tutulu, Uribarri eta Azurleku izan dira kalean eta mobilizazioak egin dituzten auzoetako batzuk.

Gainera, irailean bertan hiritarren artean milaka sinadura batu eta Bilboko Udalaren erregistroan entregatu zituzten, antena horien kontrako aginduak eskatzeko. Telefono mugikorretarako antenak osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeela argudiatzen dute.

Dena dela, Bilboko Udalak telefonia mugikorretako antenen gaineko arautegia prestatzen dihardu. Orain arte ez da udal taldeen artean akordioarik gauzatu baina batzarrak egin egiten dituzte. Azken asteetan gaian adituak diren lagunak agertu dira batzordekideen aurrean azalpenak emateko. Behin Bilboko Udalak arautegi berri hori onartuta lizentzien gaiari zelari heldu erabakita geldituko da.

ZURE PUBLIZITATEA

BERTON

94 473 54 48

**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!**

SAAK

ADI
ASESORIA
FISCAL, CONTABLE, LABORAL
ARREDO, MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net




**Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza**



ERRIKARRIA

berton

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA



hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
 Abizenak:
 Kalea: Zenbakia: Solairua:
 Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura

TXURDINAGA ETA SANTUTXU ARTEKO LOTURA ZAHARBERRITUTA

Ia 120 milioi pezetako inbertsioa egin du Bilboko Udalak Santutxu eta Txurdinagaren arteko bidea zaharberritze-ko. Enrique Ibarreta eta Doctor Ornilla kaleen arteko loturako errepidea hobetu, zabaldu eta asfaltatu egin dute. Espaloiak ere zabalago utzi dituzte oinez doazenentzat erosoago izan dadin. Hiru hilabetez jardunean ibili eta gero obrak ez daude guztiz amaituta, Zumalakarregirako bidezati bat oraindik itxita dago eta.



Uribarriko II Gazte Olinpiadak

Bederatzi taldek eman du izena kirol probetan parte hartu ahal izateko

Itxaso Pérez
 Iragan urtean Uribarriko zenbait gazte talde elkartu ziren auzoan gazte giroa berpiztu nahian, eta asmo horrekin Lehenengo Gazte Olinpiadak antolatu eta egin zituzten, arrakastaz egin ere. Aurten, gazte horiek Uribarriko Gazte Elkartearen izenean Bigarren Gazte Olinpiadak aurrera eramane dituzte irailaren asteburuetan zehar. Iazko helburuari eustiaz gain, hau da, gazteak auzoan ibiltzearena, jende gaztea ekimen alternatiboetan mugiaraztea ere helburua dute aurten. Eta idazki hau idazten ari garen bitartean betetzen ari direla ziurtatu digute. Aurtongo saiorako kamisetak, publizitatea eta sarirako babesle- en laguntza izan dute.

Aurten bederatzi taldek eman dute izena, horietatik bi baino ez mistoak. Irailaren Tean hasiera eman zitzaien Olinpiadeei atletismo probekin, eta horrela, larunbat goizez eta igande arratsaldez, asteburuz asteburu saskibaloian, musean,

txirindularitzan, irristaketan, eskaladan, paletan, futbitoan, esku pilotan eta ping-pongean aritu izan dira partaideak. Eta ez dut esango mutilak gutxiesteagatik, ez txarto ulertu, mesedez, baina talde mistoetatik neska gehien daukana oso emaitza onak eskuratzen ari dira. Adi ibili, mutilok!


Baina txapelketa ez dago, lerro hauek idatzi orduko, erabakita. Izan ere, azkenengo probak, herri kirolakoak hain zuzen, Uribarriko Jaietan jokatzekoak ziren, irailaren 29ean hain zuzen. Gorputzak eustekotan, behintzat.

Eta iaz legez, Olinpiadari amaiera ezin hobea emateko zer eta bazkari herrikoiei bat partaide guztien artean, lehiaren aurrez-aurrekoa eta txarto-esanak ahazteko eta "galdu" diren indarrak (eta galdu ez direnak ere) berreskuratzeko era hobirik ez delako mundu honetan. Hurrengo urtean, gehiago. Zer gehiago? Ba... bakoitzak gurago duena ipin dezala.

Iñaki Zabalarri azken agurra

Irailaren 16an Iñaki Zabala hil zen, 65 urte zituela. Oso pertsona ezaguna zen Santutxu aldean. Karmelo ikastolako sortzaileetako bat izan zen. Bilboko Udalean ere zinegotzi ibili zen Eusko Alkartasuna alderdi orduan jaio berriaren ordezkari gisa. Udal jardunaren ondorioz, Ur Partzuergoko lehendakaria izendatu zuten.

Irailaren 17an Santutxuko Karmelo elizan azken agurra eman zioten senide eta lagunek. Jende asko batu zen. Besteak beste Eusko Alkartasunako idazkari nagusia Gorka Knorr azaldu zen.



ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabilta

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
 Iturriaga 55, 1. Ezkerre
 Tfnoa. : 944735448
 E-posta: asapala@eusnet.org




INTERNETEKO ATEA

Gutxi dira gurean interneten web gunerik duten ikastetxeak

"Konekta zaitetz" aroan bagaude ere ez dira asko gurean interneten zelan edo halan presente dauden ikastetxeak. Gaur egun etxe asko sarearekin lotuta egon arren, urriak dira euren zerbitzuen berri interneten ematen duten ikastolak. Etorbizuna ate joka daukagula kontuan hartuta, luze barik joera aldatuko dela pentsa liteke.

Testua: J. Larrazabal



Interneten sartu gara gure inguruetako ikastetxeen usaina sarean hartzeko. Ariadnaren haritik tiraka legez ibili gara bilatzaile eta web orrietako loturetan barrena handik eta hemendik bila, bazter guztiak ongi miatuaz. Emaitzak, hala ere, urriak izan dira, ikastetxe mahatsorriek ez dutelako interneteko eremua sakon landu. Gehien-gehienok ez daukate web orririk eta beste batzuek, eduki arren, ez dute larregi landu.

IBILALDIA

Web gune propiorik gabekoa izanik ere, Abusu ikastolak presentzia nabarmena dauka sarean. Joandako maiatzeko Ibilaldia 2001 antolatu izanaren emaitza

kiez gain.

Abusu ez da interneten dagoen ikastola bakarra. Gurean, egia esanda, irakaskuntzako sailik eta dinamikoena dela ematen du, sarean sartzeko behinik behin. Begoñazpi ikastolaren web gunea egunotan "obretan" dago, edukiak eta itxurak zaharberitzen. Beraz, oraindik ez dago eskuragarri. "Begoñazpi.net" da Elizbarrutiaren ikastola honen interneteko kokalekua.

KARMELO SOLOKOETXE

Eta Karmelo Solokoetxe ikastolak ere bere txokoa

da. Izan ere, "ibilaldia.com" helbidean "ibilaldia 2001" atalera jo eta bertan Abusu ikastolaren gaineko informazioa topatuko du interneteko bidaiariak. Ikastolaren historia dakar orri horrek, eraikinaren argazki txiki batez hornituta.

Gainera, zuzenean ikastolaren gaineko informazioa ez bada, orri horretan bertan Ibilaldia 2001eko hainbat jakin-garri topa daitezke. Besteak beste, Bizkaiko ikastolen jaiaren bideoa eta abestia -mp3 formatuan- eskaintzen ditu, ibilbidearen gaineko xehetasunez eta egun hartako argaz-

dauka sarean.

Jalgi.com/ikastolak/ikasweb/karmelosoloko helbidean topatuko duzue. Lau ataletan banatuta dago web gune hori. Batetik, "Irudia" berbarene gainean klik egin ez gero ikastolaren eraikinaren argazkia ikus daiteke, goitik egindakoa. "Zerbitzuak" sailean ikastetxearen jarduerak, zerbitzuak eta eskolaz kanpoko ekimenak agertzen dira zerrenda batean bilduta.


Hirugarren atalak ikasleen gunea iragartzen du baina ez dago eginda. Azkenik, web guneak lotura batzuk eskaintzen ditu interneten nabigatzen segitu ahal izateko.

Azkenik, irakaskuntzako kooperatiben elkartearen web orrian -fcee.net- Artxandako Trueba ikastetxearen eta Txurdinagako Kirikiño ikastolaren orri bana dago. Bertan euren helbideak eta telefono zenbakiak baino

ez dira agertzen.

Gutxi da, duda barik, gurea bezalako alderdi baterako. Baten bat eskapatuko zitzagula onartuta ere, hainbeste eskola, ikastetxe eta ikastola inguruan izanik, uzta urria da interneten topatu duguna. Laster batean gauzak bestelakoak izango dira. Seguru.

bertan



BASTERTXU

TABERNA

Ricardo Bastida plaza

Sugea taberna

Iturriaga, 92 Santutxu

ZURE PUBLIZITATEA

BERTON

94 473 54 48

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38
659 45 16 22

SANTUTXU SPORT

Pa...Ya **JO TA KE OTXARKOAGA**
EUSKALDUNDU ARTE

OTXARKOAGA

Pa...Yak baditu alternatibak

GANEKOGORTA (ALONSOTEGITIK)

Balmasedarako bidean, Alonsotegiko eliza igaro eta seihun metrotara, bide arteza amaitzerakoan, ezkerrean ateratzen da El Somorako errepidea. Horik joango gara, laster Aldanondo baserriatik pasatuz Aldana eta San Martin (El Somo) auzoetara heltzeko. Martin Deunaren ermitaren ondoan utzi genuen autoa (A).

Apur bat aurrerago jarraituta etxe bat aurkituko dugu eskuinaldean. Zeozer aurrerago, asfaltozko pista amaituko zaigu beste etxe baten ondoan. Ezkerreko pistari jaramonik egin barik, gure bideak eskuinalderantz jotzen du. Laster bidegurutzetara batean egongo gara: erdikoa eta eskuinaldekoa utzita, ezkerrean doana hartuko dugu.


Berehala hariztia agertuko zaigu ezkerrean, eskuinaldean pinuek segitzen duten bitartean. Haritz basoa amaitzen den tokian bertan eskuinaldera joko dugu. Pinudian zehar eta aldapan gora joango gara. Laster gure bideak biragune itxia egingo du ezkerretara. Eskuinalderantz doazen pistak ikutu gabe, segituan helduko gara lepora (B).

Hemen ezkerretatik ekingo diogu bideari. Alartzeak ikusiko ditugu, baita pinuak ere. Ondoren, belartza batera helduko gara eta minutu gutxitan ebaki izugarria agertuko zaigu ezkerrean. Apur bat aurrerago argindarraren harien azpitik pasatuko gara. Geroago gure pista goiko aldera abiatuko da. Hona heltzen garenean bertan Zamaia haitza ikusiko dugu (604 m.).

Etorri garen pistatik bertatik segituko dugu eta Zamaia mendia eskuinaldean utzita, apur bat jaitsi eta Congueda (C) lepora iritsiko gara. Hemen elektra hariteriaren azpitik pasatuta ezkerrean aldean dauden pistak utziz, zuzen jarraituko dugu pinudi batean sartzeko. Hemendik aldapa gogorrean igoko gara eta ezkerrean ateratzen diren lehen bi pistak hartu barik hirugarrenetik joko dugu.

Laster, pinudia amaitzen denean, eskuinalderantz doan pistan barrena sartuko gara bi argindar zutoinen artean. Pista utzi gabe segituko dugu Pagero (D) lepota lortu arte. Hona heldu baino lehentsuago eta bidezidor batetik sartuta, iturri bat daukagu hur-hurrean.

Behin lepota ailegatuta, ezkerretatik ateratzen den bidexka hartuko dugu eta berak tontorreraino eramango gaitu. Ganekogortan (998 m) gaude.




DATU TEKNIKOAK

Iraupena: Bi ordu.

Desnibela: 950 m.

Zuhaitz motak: Arkazia, eukalipto, hariztia, pinua, nekosta, alartzea, hariz amerikarra, ipurua, zilarra, elorri zuria, pagoa.



Aitziber Irurtia:
"Jendearen babesa
sumatu dut Aste Nagusian"

Gaztedi dantza taldeko
pregoilaria jaitan
"oso gustura" ibili da

Aitziber Irurtia santutxuar gaztea izan da aurtengo Aste Nagusiko pregoilaria, Gaztedi dantza taldearen ordezkari gisa. Eginkizun gogorra, duda barik, edonoren indarrak zeharo gastatzeko modukoa. Hala ere, Aitziber Irurtia oso pozik dago esperientziarekin. Batetik, lagunen eta jendearen babesa aldean sentitu duelako. Bestetik, Aste Nagusia barru-barrutik ezagututa jai handiak direla baieztatu duelako.

Testua: H.Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona

Gaztedi pregoilari izan da aurtengo Aste Nagusian. Gaztediko guztien artean, zergatik zeu?

Pregoilari izango ginela zuzenean denorik, asteazkene-tako entsaio mistoan, esan ziguten. Ariniketan norbaitek aukeratu behar genuen hurrengo eguneko eguerdi aldean aurkezpen ofiziala egingo zelako. Entsaioan geundenak batzartu ginen eta bertan geundenen artean hautatu behar izan genuen, ez zeudenekin ezin genuelako kontatu. Halako papeleta zozketa bat egin genuen eta nori eta niri tokatu zitzaidan. Beste gauzetan inoiz ez zait ezer tokatu baina hau...

Hurrengo egunean prentsaren aurrean. Salto handia izan zen?

Urduri be ez nengoen baina gero hasi nintzen ohartzeko gorritasuna aurpegira zetorkidala eta pentsatu nuen: 'Hau gogorra izango da'. Baina hasierako egunetan guri be ez ziguten gehiegi eskatzen. Ni gainera nire lana zein izango zen jakin barik heldu nintzen.

Dena pasatu ostean, Aste Nagusia beste modu batez bizi izan duzu...

Bai. Topera. Ez da bakarrik txosnetan zabiltzala. Ibili behar duzu hainbeste lehiaketatan, txikigunean, hainbeste gauzatan normalean disfrutatzen ez dituzunak ez daukazulako astirik. Pregoilariaren ordutegia egun osoa da eta ahal duzun neurrian betetzen duzu. Eta hori izan zen. Nik orain buruan daukadan irudia da beti egon naizela kalean. Ez dut kontrolatzen zein egunetan zer, baina beti kalean. Eta gustura, eh?

Esperientzia polita orduan...

Bai. Nahiko nuke horiz jantzi barik egotea, nahiko nuke beste urteren batean, pregoilari izan barik edo, Aste Nagusia horrela bizitzea, konturatzen zarelako oso jai onak direla. Eguneroko bizitza egiten duzunean esaten duzu: 'hauek dira jaiak!'

Baina hainbeste ordu sartuta, nekagarria ere izango



zen, ezta?

Bai, jakina. Nik neukan beldurra zen, gazte ikusten nindutela, ez nekiela jendeak zelan hartuko zuen pregoilaria txosnetatik ibiltzea. Eta oso jarrera ona ikusi dut eta horrek ere asko lagundu dit. Jendea animuak ematen etortzea, era onean etorri zaizkit beti... Jendea jator ibili da. Eta esker-tzen da ze bestela jendearen laguntza ez badaukazu esaten duzu 'dena pikutara!'. Alde horretatik ere, oso esperientzia polita izan da.

Jende ezezagunaren babesa ez ezik, Gaztedikoena ere eukiko zenuen...

Bai, lagunen babesa euki dut. Eta jendeak zaindu nauela sentitu dut. Ez naiz heldu etxera egun batean ere katxi bat alkondaran jausita. Bai zera! Inoiz baino garbiago bota ditut nire parrandak. Paseillo edo egiten nindutela uste dut. Ja, ja. Beldur nintzen pregoilari jantzia zikindu eta biharamunean etxetik atera ezinik egongo ote nintzen.

Zelakoa izan da pregoilariaren jai egun normal bat?

Edonork programa hartzen duenean hor topatuko duen gutzia. Ahal den neurrian, guztira joaten nintzen.

Ze motako giroa topa duzu jaietan?

Oso giro polita. Ez dakit aurren bizi izan dudalako ordu gehiagoz eta giro ezberdin gehiago, baina itzela iruditu zait. Oso maila ona dago, guztientzako gauzak daude. Jen-

dea parrandara doa, baina parranda sano-ra. Sano, zentzu metaforikoan, jakina. Ja, ja.

Bitxikeriarik?

Guri esan ziguten behin programa amaituta arropaz alda genezakeela, baina egitarauko gauza guztietara pregoilariz jantzita joan behar nuen. Gau batean goiz amaitu genuen, etxera joan, aldatu eta pentsatu nuen 'gaur neure modura botako dut parranda'. Zazpi Kaleetan metrotik atera eta, lagunak itxaroten nengoela, familia-rekin zegoen gizon bat etorri zitzaidan eta esan zidan: 'aizu, debekatuta duzula arropaz aldatzea, eh?'. Neu, harri eta zur. Eta gero, anekdota gisa, jende pilo bat etortzen zitzaidala nirekin argazkia egiteko.



Txundituta gelditzen nintzen. Marijaiarekin batera, txupinera eta pregoilaria figura garrantzitsuak dira jendearentzat.

Eta unerik larriena zein? Pregoa?

Pregoa irakurtzen, benetan, ez nintzen batere urduri egon. Haserretu nintzen justu niri Plaza Barritik Arriagarako alda-keta tokatu zitzaidalako. Sekulako jendetza zegoen. Nik uste dut ez zela espero. Arriagatik Mallonan, han goian ere, jende pilo bat ikusten nuen. Baina bestela momentu tragi-korik ez da izan.

Ez zenion zeure buruari galdetzen 'zertan nabil'?

Egunero. Gosaltzera nioan bakoitzean esaten nuen 'zer demontre egiten dut hemen?' nire kapela besapean, jaka, alkondara...

Eta momenturik gozoena?


Arriagako balkoitik ikusi nuen irudia, jendearen irudia. Gero oso ondo pasatu dut, parrandak bota ditut, jendea oso jator portatu da, baina niretzat betiko geldituko dena izango da Arriagako balkoira atera eta handik sekulako jendetza ikustea.

Pregoiaria izan eta gero Aste Nagusiaren irudia aldatu zaizu?

Ez, espero nuen. Orain ikusi dudana da toki guztietan jende asko dabilela: Txikigunean, erraldoien atzetik, ... Bilbon jaiak pasa dituenak badaki zelangoak diren eta horregatik ez naiz harritu.

Gaztedirentzat zer suposatu du pregoilari izatea?

Edozein talderentzat, gizarte nabarmen ez garen taldeentzat, oso garrantzitsua. Ohorea ez da izan Gaztediri bakarrik: gainerako dantza taldeei ere zuzenduta zegoen. Horrekin esaten da badagoela jende asko euskal kulturaren alde lanean, astegunak eta asteburuak ematen. Pregoiaria-rena esan zigutenean txundituta gelditu ginen eta, jakina, pozaren pozaz.



Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Biktimenganako Laguntza Zerbitzua
Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos
y Cooperación con la Justicia

INMOBILIARIA
Gelaya
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-
SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92
Tfnoa: 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo



ARROPAK ★
ZILARRA ★
OPARIAK ★

Part. Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz



Santutxuko poteo gunean

horoskopoa

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Depresinoa ekarri dozula oporretatik? Zelan leike hori? Hoba dozu hurrengoan oporretan ez joatea.

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Koxuaren moduan zabilz baina ez zaitez kexatu. Arriskua non egoan jakin dozu horra sartu aurretik. Ikusi eta ikasi.

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Lotsati joan zinen eta berbalapikotxu eginda zatoz. Ez zenduen ezer arraro hartuko ezta?

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Beharrea hastea, langabetuaren poza. Baina txanpainaz ospatzea be larregi da. Gero egunero joan behar da lantokira.

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Athletic igaz baino hobeto dabilela esaten daben horietakoa zara. Mahatsorria zarala esango dozu gero!

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Lagunen bat bere udako ligeak kontetan hasten jatzun hurrengoan, ebagi egiozu berba jariora bosgarren ordua bete baino arinago. Ala ez zara guzurrak entzuteaz nekatuko?

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Kirola, aire librea, eguzkia, maitasuna, natura, jaiak, parrandak, epela, askatasuna, itsasoa, ... Hori dena akaba da, lagun. Hurrengo udara arte.

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Kinielak egiten hasi zara eta, betiko lez, Athleticek hondatzen deusuz. Baina, orain arte ez bezela, ez da partiduak galtzen dauazalako.

Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Parrandarik parranda ibilteaz ez zara nazkatuko? Gau eta egun edan eta edan. Sametik behera botetan dozun guztiaz Txurdi-nagako piszinak beteko zendukez.

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Donostian Zinemaldia bai, eta zer? Pelikuletako kontu guztiak guzur hutsak dira. Ez egin kasurik horri eta ahaztu Kontxa ondoko diskoteka horietako batean gorila gisa kontratatzeke asmo ero hori.

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Huri aspergarri honetaz hainbeste urte kexuka emon ostean Dorre Bikien aurkako erasoaren ondoren Bilbo egokiago ikusten dozu, ezta?

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Millonetis, ez dozu ezer esan. Baina... zeu ete zara bonolotoko milioi bete gurdia eroan dauena? Ez ahaztu abisatu genduenik.

A
D
A
T
O
Z
!

agenda

URRIAREN 4-5:
MIKEL URDANGARIN.
KAFE ANTZOKIA.
GAUEKO 10ETAN.

URRIAK 15:
GABRIEL ARESTIREN EGUNA.
BIDEBARRIETA LIBURUTEGIA.

URRIAREN 18:
SOBER ETA NON DEMONTRE.
KONTZERTUA. KAFE ANTZOKIA.
GAUEKO 10ETAN.

URRIAREN 18-20:
UME ETA GAZTE LITERATURAKO
JARDUNALDIAK.
"AHOZKO IPUINAK",
GALTZAGORRI ELKARTEA.
BIDEBARRIETA LIBURUTEGIA.

URRIAREN 21:
NAFARROA OINEZ'01.
LODOSA-SARTAGUDA.

URRIAREN 22-26:
POESIAREN ASTEA.
BIDEBARRIETA LIBURUTEGIA.

URRIAREN 25:
M-N EZTEN. KONTZERTUA.
KAFE ANTZOKIA.
GAUEKO 10ETAN.

URRIAREN 26:
ALBOKA & MARTA SEBESTYEN.
KAFE ANTZOKIA.
GAUEKO 10ETAN.

URRIAREN 30:
MIKEL LABOA ETA ENRIQUE
MORENTE. KONTZERTUA.
EUSKALDUNA JAUREGIA.
ARRATSALDEKO 8,30ETAN.

**URRIAREN 19ETIK
AZAROAREN 21RA:**
POTT BANDA. ERAKUSKETA.
BIDEBARRIETA LIBURUTEGIA.

